



tietako jendea; nagienek ere, disfrutatzeke beta izan zuten paseotxo lau-laua izan baitzen atzokoa.

Kilometroak jaiegunerako ibilbidea zehaztea ez omen da lan makala. Izan ere, ugari dira aintzat hartu beharreko kontuak: autobus eta autoentzako aparkalerkuak, guneen kokagunea, segurtasun neurriak... Eztabaida eta burukomin askoren ostean, ordea, Bergarako ibilbidea egokia zela frogatu zuten. Gainera, hiriguneak eta naturguneak bat egin zutenez, gustu eta kolore guztietako pertsonak alai eta kontent ibili ziren bate-tik bestera.

SEI KILOMETRO SEI GUNE

Ibilbidearekin batera egitaraua ere primerakoa izan zen, ekitaldiz bete-beterik zeuden sei gune topa baitezkeen ibilbidean barna: Herrigunean zegoen Ikastola gunea; atsedean eta lasaitasunerako toki bilakatu zen Usondo gunea; umeen helburu zen Matxitegi gunea, eta gazteen bilgune izan ziren kiroldegia eta Espoioia eta Artabila gunek.

Kilometroak jaialdiaren arrakastaren isla Anje Duhaldere emanaldia izan zitekeen, edo Pantxoa eta Peiorena, edota agian, Kautaren kontzertua. Ikusmin handia sorrarazi zuten kontzertuak izan ziren horiek, jendez lepo egon baitziren. Hala ere, ume kopurua ikusita, ezin dugu alboratu Betizuen eta Txan Magoaren saioek jasotako harrera... zelako algarak sortu zituzten Txanek erabili ohi dituen hitz magikoek *artxila mortxila!*

Jendea Bergarara iristeko irrikaz zen. Eta irrika horrek hainbat arazo ere eragin zituen Bergarako sarreran denbora tarte batez; hala ere autobus zerbi-

Jende andana ibili zen han hemenka, batzuek Betizuekin jolasten, besteak dantzan eta beste asko ibilbidean zehar.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

tzua indartu, eta arazoa konpondu egin zen. Osterantzean, antolakuntzak esandakoaren arabera, ez zen bestelako arazorik izan.

Irrikaz topatu genituen besteak beste, Nahikari eta Josu, 3 eta 6 urteko anai-arreba donostiarrak. Goiz esnatuak ziren, eta plaiarak eta txandala soinean jantzita, autoan sartu ziren Gorka eta Miren gurasoak lagunduta. Bi umetxoek bidaia osoa, «zenbat falta da? noiz iritsiko gara?» esanez igaro dutela aitortu du Mirenek, eta kotxetik jaitsi bezain pronto, korrika abiatu direla dio barrezka. Baina, zergatik horrenbesteko urduritasuna? galdetu diegu haurrei. Haiek, lotsati, Kilometroak oso gustuko dutela azaldu digute.

Biek ala biek iaz ezagutu zuten Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdia, etxetik gertu izan baitzuten aurreko edizioa, Oiartzunen. Alta, horren egun polita igaro ostean, aurreko kilometroak egitera animatu direla adierazi zuen Gorkak. Han utzi genuen familia, ikastola gunean, puzgarri batetik bestera lasterka.

KOLOREAK NONAHI

Koloreak ez ziren faltan izan Bergaran. Etxetako balkoiak ere, Kilometroak jaialdiarekiko elkartasuna adierazten zuten banderaz dekoratu ziren. Hori gutxi balitz, etxeko txikiak masailak ere kuadro bilakatu ziren atzo. Komeriak ordea, gauan etxera iritsi orduko aurpegiak garbitzeko!

Baina, etxeko txikiak ez ziren izan disfrutatzeke parada izan zuten bakarrak. Adin guztietako pertsonak izan ziren Bergaran bildutakoak, helduak, zaharrak, gazteak... batzuk jan edanean, eta besteak jolasean. Batzuk kontzertutan dantzan



**Txan Magoak
ume eta
helduen
ikusmira eta
algarak
sortarazi zituen
bere hitz
majikoekin**